

HIZKUNTZA EGOKITASUNAZ ETA ZUZENTASUNAZ IPUIN KONTAKETAN



Joxemari Carrere
Ipuin kontalaria

1. NON KONTATU. NORENTZAT

Behin Zorrotzako Institutuko ikasleentzat kontatu behar nuen. Pasilloan zain nengoela, saiora bidean zihoazen ikasle batzuk nire ondotik pasatu eta justu orduan, batek: “La de euskara se ha *pasao*, ¡un cuentacuentos!”. Nire baitan pentsatu nuen: “Ño!, publiko gogorra gaurkoa”. Eredu erdalduneko ikasle nerabeak ipuinak euskaraz entzuteko saioa, alajainkoa! Argi nuen hasieratik nire alde jartzea ez zela erraza izango, baina era berean erronka polita nuen. Dena dela, lehenengo aldia ez zenez, bidea, edo bidezidorra, egina nuen.

Ipuinak kontatzerakoan, kasu honetan nerabeei, zer ipuin kontatu baino, hainbatetan garrantzi handiagoa hartuko du kontatze estrategiak, publikoaren ezaugarrien ezagutzak eta norberak horien aurrean hartzen duen jarrerak. Izan ere, ipuin kontaketa komunikazio zuzeneko jardun artistikoa denez, hau da, joan-etorrian garatzen eta elikatzen dena, lortu nahi diren helburuak bete ahal izateko, komunikazio horretan eragiten duten hainbat faktore hartuko dira kontuan. Eragile horietako bat hizkuntza da, euskara gure kasuan. Normalizatzeko bidean dugun hizkuntzak hiztun askorentzat arrotz jarraitzen du izaten, Zorrotzako gazteentzat esaterako. Ipuinak euskaraz kontatzerakoan, arrotz izate horrek eragin zuzena izango du kontaketa garapenean, oinarrizkoa den komunikazioan interferentzia bat. Interferentzia hori saihestu edo arintze aldera, kontalariak estrategia bat beharko du.

- **Jatorriaren garrantzia hizkuntzarekiko atxikimenduan:**

Gazte asko jatorri erdaldunekoak izanik, eta gainera inguru erdaldunean haziak, normala da euren berezko hizkuntza erdara izatea, eta euskara eskolako hizkuntza gisa hartzea. Euskararen gaur egungo normalizazio falta izango da horren eragileetako bat, garrantzitsuena agian. Atxikimendu eza, edo ahuldadea

ulertzea ezinbestekoa da gazteen arreta arina ulertzeko. Euren mundu imajinarioaren zatirik handiena, eta beharbada haientzat interesgarriena dena, erdaraz eraikita badago, zaila izango da orduan ipuinen bitartez proposatu nahi diegun mundu hori euskaraz ere gara daitekeela konbentzitzea. Are gehiago, eskolaren munduarekin identifikatzen bada.

Gazte horien arteko harremanak erdaraz izaten badira, erdara bada hizkuntzarekin jolas egiteko tresna, erdaraz garatzen badituzte maitasun eta gorroto hitzak, irudimenaren hitzak erdaraz badira, euskara ere irudimenaren eta harremanen hizkuntza izan daitekeela azaltzea korapilatsua izango da, baita ere ipuinen bitartez eman nahi bada. Erabiliko den hizkerak zer ikusi handia izango du honetan ere.

Gaztea izateak errebelde arima badakar berarekin. Oldartze horren alde bat hizkuntzaren erabileran dago; horregatik, gazteek euren hizkera propioa garatu nahi izaten dute, helduen zein eskolaren lurraldeetatik at daudela azaltzeko, nonbait. Euskarak tresna hori ematen ez badie, erdara baliatuko dute. Bizi diren ingurua erdalduna bada, kaleko hizkuntza erdara bada, euskara alboratuta geldituko da gaztetasunaren hizkuntza gisa. Dinamika horretatik irteteko, kexa baino egokiagoa litzateke arrazoiak ulertzea eta bidea ahalik eta egokien aztertzea. Ipuin kontaketa, esan bezala, joan-etorriko komunikazioan eraikitzen denez, hizkuntza erabiliz, gazteen mundu imajinarioetan abiatzeko tresna izan daiteke, berriak proposatzeko ez ezik.



- **Ipuinak baserritik hirira, euskara hiritartu:**

Egungo euskal gazte gehienen ingurua hiria da. Zoritxarrez giro urbano hori erdalduna dugu nagusiki, nahiz eta gazte askok eta askok euskaraz ikasi izan, Erkidego Autonomoan batik bat. Orain aipatuko ez ditugun arrazoiengatik, euskara herri txikietan kontserbatu izan da, baserri edo arrantzale girokoak nagusiki. Honek ekarri du euskarak berak zailtasun handiak izatea hiri hizkuntza bat izateko, alegia, hizkuntza urbanoa. Gazte gehienak giro urbano horretan bizi direnez, zaila da euskararekiko atxikimendua, hizkuntza formalegitzat hartzen baitute euren eskolatik kanpoko jardunetarako zein harremanetarako. Euskara hiritartzea, agian, egun dugun erronkarik handienetakoa da hizkuntzaren normalizazioan. Hain erraz azaltzen den arazoa, ertzez betetakoa bihurtzen da praktikan jartzerakoan. Hori dela eta, ipuinak kontatzen gazteengana jotzerakoan kontaketa formalismo horretatik ateratzeko eta euren mundura ekartzeko, hizkuntz estrategia garrantzitsua bihurtzen da. Kontalariaren lana izango da, aipatzen ari garen testuinguruan, aurrean dituen gazteei moldatzea bere hizkera, jakina, errazkerian erori gabe, baina hizkuntzak berak eskaintzen dizkion baliabideetatik abiatuta.

Baserritik hirira jauzi egiterakoan, euskarak aberaste bidea egin behar du, berritu, baina berezko zaporea galdu gabe. Kontalariak hizkuntza eredu bat eskainiko du bere jardunean, eta aurrean dituen gazteek bere egin dezaten, gertukoa, erabilgarria eta erakargarria ikusi beharko dute. Urbanoak eta euskaldunak izan daitezkeela sentitu behar dute.

- **Euskara batua, euskalkirik ez dutenen euskalkia:**

Askotan nolabaiteko hizkuntza *jatorkeria* agertu ohi da euskararen erabileran, gazte askoren mundutik urrun gelditzen den hizkera eredia goraiatuz, gazte horiek erabiliko dutena gaitzetsiz. Euskalkien jatortasuna goraiatzen da, eta beharbada arrazoi osoz, baina zer gertatzen da euskalkirik ez duen gaztea dugunean? Nola aldarrikatu inguru erabat erdaldunean bizi den gaztearen euskalkia? Euskara batua eta formala baino jaso ez duen gazteak zer euskalki izango du? Zein izango dira bere ahozko erreferentziak euskara arin, jator eta malgua erabiltzeko orduan?

Beharbada hasi beharko dugu onartzen gazte askoren euskalkia euskara batua bera dela. Euskara batua da ezagutzen duten euskara. Euskara batua da eskolan jasotzen dutena. Eremu erabat euskalduneko hizkuntza arrotz egiten zaie, askotan ulergaitza. Beraiek ere euskaldun jator eta benetakoak senti daitezen, hizkuntzaren erabilerari dagokionez behintzat, euren euskalkia batua bera dela onartu beharko dugu. Hori horrela izanik, hizkera bizia, egunerokotasunean erabilgarri eta gazte urbano izaerarekin bat etor daitekeena izan daitekeela ikusi beharko dute. Jakina, horrek ez du esan nahi hizkera traketsa, erdarakadaz josia

eta linguistikoki ahula izan behar duenik.

Ipuin kontaketan halako ereduak erakutsi daitezke. Istorioaz gain, euren errealitatetik hurbil egon daitekeen imajinarioa azaldu; hizkuntza, interesagarriak egingo zaitzaizkien istorioen garapenari lotua. Kontalariaren lana izango da erabiliko duen hizkuntz estrategia bide horretatik eramatea. Erreferentzia bihur daiteke, eta erreferentziatik, eredu, agian. Euskara modernizatu eta urbano baten bilaketan, kontaketa tresna liluragarria bihur daiteke; eta gazteentzat, hizkuntza jolasleku gisa deskubritzeko bidea.

2. GORPUTZA MINTZATZEN DA

Ipuinak kontatu nahi dituenak ezinbestekoa izango du Gianni Rodari idazle eta pedagogo italiarra irakurtzea. Batez ere bere *Grammatica della fantasia* (Gramatikaren fantasia). Niretzat behintzat biblia da. Proposatzen dituen ariketa, edo hobeto esateko, jolasen artean, badago bat zoragarria. Ipuin ezagun bat, eman dezagun Txano Gorritxo, erabat adrebestua kontatu haurrei. Jolas liluragarria da. Halaxe hasi nintzaien Beasaingo ikastolako haurrei, lauzpabost urte bueltakoak. Hasieran aho txikiarekin zuzentzen zidaten izebaren etxetik ez, amarenetik abiatu zela. Gero eta ausartagoak, gero eta nahasmen handiagoa, harik eta neskatxa bat haserretuta altxatu eta: “Ez da horrela! Horrela da!”. Ipuinak goitik behera kontatu zidan ziztu bizian. Amaitutakoan sendo esan zidan: “Eta orain kontatu!”; eta besoak gurutzatuta eseri zen berriro. Harrigarriena etortzekoa zen ordea. Otsoak Txano Gorritxo beregana deitzen duenean. Nik besoak luzatu eta esan nuen, ohiko moduan: “Etorri, etorri...”. Baina ordura arte txintik esan gabe egondako neskatxak: “Ez da horrela”. “Nola da ba?”, galdetu nion heldu orojakilearen tonuaz. Eta neskatxa altxatu egin zen, besoa luzatu eta esan zuen: “Horrela da. Etorriiii, etorriiii...”. Une horretan guztiok amonaren gelan geunden, otsoaren dei hipnotizanteak harrapatuta. Ipuinak kontatzeko leziorik handiena izan zen hura.

Ahozko komunikazioan hitzak bezainbat garrantzi gorputzaren adierazpenak dauka. Hitzari gorputzak laguntzen dio esan nahi dena azaltzen. Neskatxak askoz gehiago transmititzen zuen “etorri” hitzaren esanahiak berak baino. Keinuetan, mugimenduetan, begiradan, ahotsaren tonuan, mundu bat irudikatzen zuen, eta horrek erakartzen zuen entzulea bere esanahi, bere lurralde imajinario horretara. Hitza gorputzari lotuta agertzen da, bata bestearen osagarri, batak bestearen indarra anplifikatuz. Eta hizkuntzan bezala, gorputzaren adierazpenean ere hizkera ezberdinak agertu eta garatuko dira.

Gorputza, horrela, hizkera mundu propio baten adierazgarri gertatzen da. Ipuinak kontatzerakoan, hitzekin batera gorputzarekin mintzatuko zaio aurrean duenari. Komunikazioa lortzeko, joan-etorri horretarako, nolabaiteko identifikazioa gertatu beharko da kontalariaren eta entzule/ikuslearen artean.

Keinuen eta mugimenduen hizkera ulergarria egin beharko zaio ipuinen hartzaileari, eskaintzen zaion irudimenezko ekintza horretan partaide izan dadin; kontatzen dena bere mundu imajinarioan onar dezan.

Identifikazio horren bitartez, istorioaz gain, hizkuntza bera ere komunikazio tresna gisa hartuko du, bere barne zein kanpo mundu eta bizipenak azaltzeko tresna liluragarria. Kontalariak eredia eskainiko du, ia oharkabekoa, gozamenaren bidetik, logikatik baino gehiago fantastikatik. Aurrerago, aipatu gazte urbanoen mundura egoera askotan arrotz edo artifiziala egiten zaion hizkuntza, keinu zein mugimendu horien bitartez identifikazioak bideratuko dira, ipuinetako pertsonaien jokamoldeak eta egoerak hurbiletik sentituz, hizkuntza bera ere hurbilago ikus dezakete.

3. IMAJINARIO ERDALDUNA EUSKALDUNDU

Esateko gogoia edo premia dagoenean, urak bezala, hitzak bidea egiten du, hala edo nola, bide zuzen edo okerretik. Eta leienda urbanoak kontatzen ari nintzeneko batean, ikasle nerabeetan arreta berezia sumatzen nuen. Egiantza duten istorio hauek jakin-mina piztu ohi dute, gazteengan batez ere, eta galdetuz gero izango da esateko zerbait duena. *“Nire abueloaren en el pueblo, badago etxe bat fantasmakin, nola esaten da de miedo?...”* Entzundako istorio horiek, lagunartean komentatutakoak, eskolatik kanpo jasotakoak erdaraz hartuak izanik, hizkuntza horretan garatu izango da azaltzeko gaitasuna, gazteleraz garatuko dira kontakizunaren tresnak. Horrekin batera barne imajinario hori erdararekin lotua egongo da. Euskaraz eman nahian hain gertaera harrigarria, hanka motz geratuko zaio hizkuntza, tresna kamutsa izango du esateko duena nahi bezala azaltzeko, eskolan jasotakoa formalagoa baita berak behar duena baino. Hizkera ez-formala behar du kontatu nahi duena azaltzeko, eta hori erdaran aurkituko du.

Hizkuntza ez da tresna isolatua, inguruak, bizimoldeak eta harremanek ere eraikitzen dute hizkuntza; eta horrekin batera munduari begiratua, bizitzaren gaineko nondik norakoak hizkuntzaren bitartez azaltzen dira, eta norbanakoak bere imajinario propioa eraikiko du. Nola, beraz, erdaraz bizi den barne imajinario hori euskaldundu? Bide bakarreko irtenbiderik ez dago, jakina. Bide horietako bat izan daiteke aipatu imajinario horretan eragin eta euskarazko erreferentziak eta ereduak eskaini, baina modu ez-formalean, entzulearen, kasu honetan gazteen bizi ikuspegiaren egokitu daitekeen iruditeria. Ipuinaren narrazioa ez da istorio baten kontaketa bakarrik, ez da eskola ekintza bat besterik gabe; ipuin kontaketa esperientzia bat izan behar du, eta kasu honetan euskaraz gauzatzen den esperientzia, non entzule bakoitzak bere bizitzarekin loturak aurkitu behar dituen. Kontalaria esperientzia horren kudeatzailea izango da. Narrazioaren bitartez hizkuntzaren, kasu honetan euskararen, eta gorputzaren tresnak baliatuz, entzulearen imajinarioan eragingo du, norbanakoarengan irudi zein sentsazio berriak gehituz. Hizkuntzaren baliabideak eraikitako irudi eta

sentsazio horietan itsatsita geratuko da eta imajinario berriari lotua, modu ez-formalean, arauetatik kanpo, zuzentasunetatik ihesi, aitzitik, sentsazioei eta esperientziei lotua. Jakina, kontalariak, hizkuntzaren eredu emaile denez, eskainiko duen eredu traketsa baino aberatsa eta baliabide anitzeko izan beharko du.



NON DAGO ZUZENTASUNA? NON EGOKITASUNA?

Gure amak idazten dituen esku oharrak ulertezinak dira askotan, hitz egin bezala idazten baititu. Ulertu ahal izateko ahoz gora irakurri behar dira, letrei doinua jarritz. Ez luke inoiz EGA edo antzekorik pasatuko. Ez du sekula ikasiko guk esaten, *guk* erraieran sartua baitu. Zuzen ala oker mintzatzen da? Adibide franko jarri dezakegu; baina entzun ahala berehala ohartuko gara euskaldun batek, erabiltzen duen hizkera erabiltzen duelarik, gure belarriak gozaten diren ala zartatzen dituen. Nola azaldu hori ordea? Zein arrazoi emango ditugu hizkuntzaren erabilera egokia den esateko. Ez dut uste erraza denik. Idatzizkoan gramatika dugu irizpide, nolabait esatearren, *zientifikoa*, arautua. Ahozkoan, ordea, korapilatsua egingo zaigu araudi zehatza argitzea.

Ahozko komunikazioa berehalakoa izan ohi da, zuzena, aurrerago aipatu bezala, keinuz, mugimenduz, isilunez, interferentziaz betea, non hitzak beste osagarri bat baino ez diren, garrantzitsuenak agian, baina komunikazio une hori beste osagarriekin banatu behar dutenak. Beraz, entzuten denari bezainbat ikusten denari jarri beharko zaio arreta. Horrek ez du esan nahi hizkera traketsa, herdoildua eta hankamotza onetsi behar denik. Kontalariak hizkuntzaren gaineko ahalik eta ezagutza zabalena landu beharko du, musikariak bere tresna ezagutzen duen gisa. Kontalariak hizkuntza eredu ere eskainiko duenez, honek eskaintzen dizkion baliabideak erabiltzen jakin beharko du.

Ipuinak kontatzerakoan, hizkuntzaren zuzentasunak irudimenaren jolasari lotua egon behar du, entzule duenaren lurralde imajinarioetara hurbilduko den komunikazioa garatu behar du. Hizkuntzaren zuzentasun hertsiegia distortsioa izan daiteke bilatu nahi den komunikazio *fantastiko* horretarako. Ahozko komunikazio egokia bilatu nahi bada, norentzat ari garen argi izan beharko dugu. Zer kontatuko dugun baino gehiago, nola kontatuko dugun izango da garrantzitsua, eta aukeratuko diren hizkera, hizkuntz baliabideak eta estrategiak askatasun osoz aukeratu behar dira. Eta, esan bezala, kontalariak erabiliko duen hizkuntzaren gaineko ahalik eta ezagutza gehiena landuko du, hizkuntzaren erabilera jolas aberasgarria dela deskubrituz eta deskubriaraziz.

ONDORIO MODUKOAK

Ipuin kontaketa dabilenak hizkuntza lan tresna duen aldetik, ardua badu ere eskainiko duen hizkuntza ereduaren gainean, are gehiago euskara bada. Hizkuntzaren gaineko prestaketa ahalik eta sendoena izanik, ikusle ezberdinen aurrean estrategia ezberdinak garatzeko aukera emango dio, betiere eredu onen bidetik. Ondorengo belaunaldiek istorioak euskaraz kontatzeko eredu aberatsak, dinamikoak, ezberdinak jasotzeko aukera badute, agian, beraiek ere deskubrituko dute hizkuntzaren jolas fantastikoaren lurraldea, eta beraiek ere hizkuntzaren garapenean, aberasbidean euren ekarriak egingo dituzte.

Gazteei ipuinak kontatzeak, beste onuren artean, euskara euren imajinarioan sartzea lekarke. Hizketaldiaren euren mundu ez-formalean hizkuntzaren baliabide askotarikoak, askeak eta aberasgarriak deskubri ditzakete, egunerokotasunean erabilgarriak izan daitezkeenak, euren gazte oldar izaeran txerta ditzaketenak.

Azkenik, beste arloetan bezala, egungo ipuin kontalaritza euskaldunak hizkuntza bere jardunera egokitzeke lanketa egin behar du, euskararen beraren normalizazioan bere hondar alea gehitu; edozein arlotan zein egoeratan erabilgarria dela erakutsi. Kontaketa beste tresna bat baino ez da, baina tresna liluragarria.

